

# U HOLDEA NATURAREN ERASO HUTSA IZAN OTE DA?

Euskal Herrian euri handiak egin izan ditu betidanik; ez dakit oraingoan tamainakorik egon ote den, baina kasurako, berdin da. Dena dela, etxeak eta herriak ibai eta erreken inguruan eraiki ziren aspaldi eta bertan iraun dute orain arte; mendien hegal eta maldak ere izan dira herrileku. Horregatik, uholdeen historia Euskal Herriaren historia bezain zaharra da gure artean.

Bilbon eta Bizkaian, Euskal Herria osoan, orobat, ezagunak izan dira uholdeak, lehen eta oraintsu. Estatistikoki ere esan zitezkeen, gutxienez bost urterik behin edo uholdeak gertatzen izan direla; baina hala ere, Naturaren azken kolpe beldurgarri honek ia defentsarik gabe harrapatu gaitu. Ez ote da garai egokia, etor daitezkeen, etor litezkeen kolpe latzagoei aurpegi emateko, serioски prestatzen hastea, oraingoan jazo dena birgerta ez dadin? Buruak pentsatzeko ere balio badu bederen, eta behin-behineko eta berehalako lehenengo mailako lanak eta laguntzak ahortzi gabe, are gehiago, horietan dugun indar eta borondate osoa ipintzen dugun bitartean, Bilbotiko ikuspuntutik abiatuta, nolabait ekidin zitezkeen edo gutxienez indarge utz zitezkeen hondamendia gerta ez zedin, aldeztu aurretik kontutan eduki behar genituzkeen zenbait arazotaz gogoeta egin nahi nuke, pentsatuz, horrela guztien buruan sartuz joango direla, etorkizunean honen antzeko tragediarik eta negar biderik ez geuk eta ez geure ondorengoek berrikusteko zoritxarrik izan ez dezagun.

### Hasteko

Pentsabidean jartzen gaituen lehenengo puntua, Bizkaiko Batzorde Antinuklear eta Ekologistek Irailaren 2an sinaturiko agiri batetan oso zorrozki azpimarratu duten legez, datu ukaezin bat daukagu. Bizkaiko

lurretara eurijasetan eroritako ur-kantitatea inguruko probintzietara eroritakoaren antzerakoa izan arren, hango kalteak askoz latzagoak izan dira, gune konkretuetan jazorikoak nagusiki: La Peña, Peñas-cal auzategietan, Errekaldeberrin, Bilbo zaharrean, Nerbioi eta Ibaizabal ibaien uharanetan,.... Zergatik?

Bigarrenik, kaleak eta lonjak garbitzen ordu luzeak pasa ondoren atera dugun eritzia, zera da, urak berak baino arego beste elementu batzuk sortu dutela kaltea: lurrak, lokatzak, harriak, zuhaitz-enborrek eta era guztietako gai solidoak. Solidoa baita bertan garbitzeko dagoena, uholdea ez baita izan ur hutsarena, urarena eta urak dakarrenarena bai zik.

### Era desberdinetako erasoak

Auzategi eta herri guztiek pairatu duten erasoak, ez da mota berekoa izan; eta mota bakoitzean ba dugu zer ikasirik. Bilboko hiru kasu aipatuko ditut adibide modura: Peñas-cal, La Peña eta Bilbo Zaharra.

Peñas-cal auzategian, nolabait adierazteko, erasoak goitik etorri da. Herria mendi aldapatsuen magalean dagoenean, herriaren gainaldean harrobiak edo meatokiak edo eragindako lurrak daudenean, mendian zuhaitzirik edo baso ganorazkorik ez dagoenean,.... lurretanik besterik ezin espero daiteke, eurijak jaurtikiriko urak zolua gogorki

kolpatzean eta erauztean. Horrela, uholdeak baino gehiago harrialde bortitzak eraso du auzategia, ia erabat deuseztu eta estaltzeraino. Harriak eta lupetzak, ez hainbeste urak berak. Atzerantz begiratu, oraingo argitasunak ematen duen ikuspuntutik, etxeak eraikitzeke kokapen desegokiagorik ezin susma zitezkeen, eta hori gertaturikoa aurrikusteko modukoa zen; konponbidean jartzea, zaila.

La Peña auzategiak goitik eta behetik jasan du erasoak; goitik aurrekoaren antzera, eta beheko aldetik, Ibaizabal eta Nerbioi ibaiak bat egin ondorengo ibainondoan kokaturik dagoelako, ibaiaren bihurtzearen kanpokaldean, ibarraren behealdean eta tartean uraren bidea zailagotzen duen irla bat dagoelarik. Plangintza urbanistikoki hori asmatu zuenik egon bazen, txartoagorik ezin egin ahal izan zuen.

Bilbo Zaharraren kasuan, erasoak ibaitik etorri da zuzen-zuzen. Honekin, hala ere, aipamen berezia merezi du, Bilbo herriaren armarrarian agertzen den San Antongo zubiak jokatu duen papera. Hain zuzen, ibaiak zekartzan gai solidoak bertan tratatzen, presa baten antzeko papera jokatu du, urari oztopo itzela jarri eta modu horretan, besteren artean ura Alde Zaharrerantz abia eraziz. Antzeratsu jokatu du Areñaleko zubiak baina beheagoko mailan.

Bestetik, ibaiak itsasoratzean, oroi-karri erara, okada edo gomituaren aztarma larria utzi du: Era guztietako gaiak, pozoinak asko, itsasoratu dira, bertan neurritz kanpoko kutsadura sortuz.

Mota gehiagoko erasoak ere izan dira, baina guztietan ikusten izan dena, urak berak baino urak zekarrena izan dela uraren berezko indarra biderkatu duena. Eta horrek

zerpentsa eman beharko liguke, plangintzak egiterako orduan.

### **Geroari begirako abiapuntu batzu**

Jazotakoa jasan eta sufritu ondoren, ia irentsi ezinik bagaude ere, Euskal Herria geroari begirako bidea egiten hasi da, berreraiketarena alegia.

Nonbaitetik hasi behar eta «one-rako ez datorren gaitzik» ez dagoela argudiatuz, Euskal Herriko industri birmoldaketari buruz hitz egiteari ekin diote batzuk. Arazoa hor dago, baina huts-hutsean ez nago aurreko esaldiarekin ados, ez horixe!, alde aurretik agintariak nahi luketen birmoldaketa horren prezio soziala zein izango litzatekeen jakin beharko baikenuke, eta, bestetik, birmoldaketa hitza askok beren interesetarako erabiliko dutelako segurantzaita baitaukat.

Gogoeta idatzi honetan Naturaren erasoaren inguruan ari bainaiz, nik neuk nahiago dut, Naturaz baliatze-ko antolaketaz berba egitea, gauzak ezin baitira edonola egin, herriak,

lantegiak eta beste ezin baitira edonon kokatu eta edozela erabili. Zerbait puntu azpimarratu behar dira hemendik aurrera, gero eta gogorra-go gainera.

- Ibaiak dragatu egingo ote dira? Bistakoa denez, azken urteotan ibaietara isuri diren era guztietako hondakin solidoek, zerikusi handia izan dute hondoa betetzen eta uretarako ubide txikiagoa uzten. Beraz, noizpait zabaldu egin beharko da ubidea, ibaiak ongi kanalizatuz.
- Kanalizazioarekin batera, dike egokirik egingo ote da? Bihurguneetan batez ere, zer ez litzatekeen horrela aurreratuko!
- Lantegietan neurriak, neurri zehatz eta gogorrak, jarriko ote dira eta praktikan bete eraziko, ibaietara hondakinak bota ez ditzaten eta ibaiondoak gai arriskugarrien biltegiak izan ez daitezen?
- Bide eta zubietan azpiegitura

egokirik antolatuko ote da, lurreneki eusteko, urari zubietan ahalik eta oztopo txikiak jartzeko eta abarretarako. Eraikuntza publikoen eta azpiegiturazko lanen prestaketarako ordua, lanpostuak sortuz.

- Auzategi, etxe eta lantegi berrien eraiketarako neurri urbanistiko egokiak hartuko ote dira?
- Mendietan lurrari eusteko zuhaitz-landaketarako plangintza egokia bultzatuko ote da, basoetako zuhaitz-moten plangintza eratuz, oraingo espekulazioari eta paper-fabriken jo-koari aurka eginez, lurraren etengabea pobretzea eta higadura gera eraziz?
- Hiritarren babesnerako neurri egokirik antolatuko ote da, edonolako hondamendiren aurrean bakoitzak zer egin behar duen jakin dezan? Puntu honetaz luzatu egin beharko genuke



geure gogoeta. Praktikan ikusi dugu, ez Bilbo eta ez Euskal Herriko beste herriak ebakutzeko, inolako plangintzarik ez dagoela. Eta berriro, Lemoizko zentralaren aurkako arrazoiatariko baten baliagarritasuna eta zuzentasuna azpimarratu behar da: Bilbo Zaharra jendez husteko ahalmena ikusiz, zer izango ote litzateke, istripu nuklearraren kausaz inguru guztiak hustu beharra bator? A! Lemoiz aipatzean, inork ba al daki, egiten ari ziren zentrolean uholdearen erasorik sentitu denentz? Jakin dezazuen, hura ere zokondo batetan dago.

#### Bukatzeko

Dirua eta lana beharko da, urtee-

tan gainera, uholdearen ondoren burua jasotzen hasteko. Eta dirua diogunean, ez gara ari, solidaritate-ekitaldietatik aterako denari buruz, hau da, futbol-partiduetatik, rock jaialdietatik eta antzekoetatik aterako denaz, horik guztiok apurrak baino ez baitira, adore emateko eta jestu modura duten balioa ukatu gabe. Dirua beharko da, diru publikoa eta asko gainera, oraingoz Estatuaren eskuetan dagoena. Madrilen zartaginar girtenetik oratuta daukatela ikusten ari gara ordea, eta ematekotan tantaka emateko asmoa daukaten horri, errentagarritasun eta etekin politikoa atera nahi diotela, hilda dagoen animalaren gainean dagoen saiaren antzera. Etekin politiko horrek izena eta konkretzioa dauka, Espainiako Armada eta Poliziaren irudiaren hobetzea eta onartzea ha-

labehartzen denean. Baina kontabilitate arazoetan trebeegia ez naizen arren, eta hemengo kalte ekonomikoak izugarriak izan direla jakin arren, FACA plangintzarako botako, alferrikalduko den dirutzarekin konparatzean, txiki geratzen direla ikusten dut. Agintarien eritziz, ostera, hori ei da lehenengo.

Bestalde, dirulaguntzaren bideraketa nolakoa izango den ere ezin da ahantzi, eskrupulu gabeko pertsonen hurrupaketak eta faboritismoak beldurgarriak izaten baitira, beti ere gutxien dutenen kaltetan eta boteretsuen mesedetan, «ibai nahasia, arrainketarien irabazia» izaten baita. Adi egon beharko da, beraz, laguntza horien kontrolarekin.

**J.R. Etxebarria**

Argazkiak: **Zarrabeitia.**

# HADE



# EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## HELDUEN ALFABETATZE-EUSKALDUNTZEA SUBENTZIOAK

1983.eko abuztuaren 31.ko «Euskal Agintaritzaren Aldizkarian» 129.zkan, Helduen Alfabetatze - Euskalduntze - Lanak aurrera eramaten dituzten Erakundeak bultzatzeko, Eusko Jaurtlaritzaren Hezkuntza eta Kultura Sailak, hiru lurraldeetako Diputazioekin lan-kidetzan emango dituen subentzioen berri agertzen dueneko ebazpena dator.

Argibide gehiago nahi dezanak jo beza honoko helbideotara:

<b>ARABA;</b>	<b>Sancho Sabio 15 behea</b>	
	<b>GASTEIZ</b>	<b>Tfno: 246333</b>
<b>BIZKAIA,</b>	<b>Alda. Mazarredo 63-4º</b>	
	<b>BILBO</b>	<b>Tfno: 4231121</b>
<b>GIPUZCOA;</b>	<b>Easo Kalea 10-4º</b>	
	<b>DONOSTIA</b>	<b>Tfno: 458099</b>